

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

384/2021 Foru Dekretua, abenduaren 30ekoa, Diputatu nagusiarena, 2021eko deialdian Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean gizarte- berrikuntzako sariak ematen duena

Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 26ko 624/2021 Erabakiaren bidez, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean gizarte-berrikuntzako sarietarako deialdia egin zen.

Sari hauetarako hautagaiak aurkezteko epea bukatu ondoren, erabakia 2021eko abenduaren 22an hartu da, horretarako egindako aktan adierazten den bezala.

Ondorioz, epaimahaiaren epaia ikusirik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehengoa. Ematea gizarte-berrikuntzako sari hauek:

- Lehen saria, 5.000,00 eurokoa, Bioalairi, “Bioalairi” proiektuarengatik.
- Bigarren saria, 3.000,00 eurokoa, innovación cultural artes y sociedad Elkarteari, “Gazte-Hiria/Ciudad Joven” proiektuarengatik.
- Hirugarren saria, 2.000,00 eurokoa, Santa Maria Parrokia “13 Casas” proiektuarengatik.

Bigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzako dagozkien zerbitzuek irabazleen alde transferentzia bidez ordain dezatela 10.000,00 euro zenbatekoa, 02402.9800.4810001 “Gizarte berrikuntzako sariak” Arabako Foru Aldundiaren 2021 eko ekitaldirako aurrekontu partidaren kontura, lerroa 02-151 (xedapen erreferentzia: 21.1.21 105.3782).

Hirugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta honen aurka, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan dioenarekin bat etorriz, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, ekintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, ekintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 30a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria

LEXURI UGARTE ARETXAGA